

- ✓ Bigarren zatia: dirulaguntzaren gainontzeko % 75a, ikerlana bukatu, entregatu eta **Noaia! Kultur Elkarteak** izendatutako epaimahaiak ontzat ematen duenean.
- 16.- Aukeratutako ikerlanak, dirulaguntzaren lehen zatia jasotzen denetik sei hilebetetara bukatu beharko dira.
- 17.- Dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanen jabetza egileena izango da.
- 18.- **Noaia! Kultur Elkarteak** beretzat gordezten du, bi urtetarako, dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanen argitalpen-eskubidea. Argitalpen honek ez du egile-eskubiderik izango.
- 19.- Dirulaguntzaren bat jaso duten ikerlanak argitaratzean, nahitaez, **Noaia! Kultur Elkarteak** emandako dirulaguntzaren aipamena egin beharko da.
- 20.- Deialdi honetan parte hartzeak, oinarri hauek eta aipatu epaimahaikoan erabakia onartzea dakar, partehartzaile guztien aldetik.



Noaia! Kultur Elkarteak

Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil

Telefonoa eta faxa: 943 - 36 03 21
E-mail: noaia@topagunea.jalgi.com

I. Noaia! IKERKETARAKO DIRULAGUNTZEN BANAKETA

Usurbilgo herrinari buruzko ikerlanak egiteko 1998rako ikerketarako Dirulaguntzak banatzeko deialdia



Usurbil, 1.998ko maiatzak 1



OINARRIAK

- 1.- **Noaia! Kultur Elkarateak** 250.000 pta. bildu ditu 1998an Usurbilgo herriari buruzko ikerlan-proiektuak burutzen laguntzeko.
- 2.- Ikerketarako Dirulaguntzak banatzeko deialdia honetan edozeinek har dezake parte.
- 3.- Burutu nahi den ikerlana edozein zientzi alorrekoa izan daiteke: historia, soziologia, biologia, kultura ... baina beti ere Usurbilgo herriari buruzkoa.
- 4.- Ikerlan-proiektuak norbanakoek nahiz taldeek aurkez ditzakete.
- 5.- Euskaraz burutuko diren ikerlan-proiektuak bakarrik hartuko dira kontutan. Erdaraz burutu eta euskarara itzuliko liratekeen ikerlan-proiektuak ez dira aintzat hartuko.
- 6.- Deialdira aurkeztuko diren ikerlan-proiektua originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute.
- 7.- Aurreko bi arauetakoren bat ez dela bete egiaztatuko baltiz, elkarte eratzailak dirulaguntza itzultzea eska lezake, emanda baldin balego.
- 8.- Ikerketarako Dirulaguntzaren bat jaso ahal izateko eskaerak, **Noaia! Kultur Elkaratearen** egoitzara (Kale Nagusia, 37; 20.170 Usurbil; Gipuzkoa) helarazi beharko dira ondoko dokumentazioarekin:
 - Egilearen edo egileen nortasuna.
 - Curriculum vitae.
 - Burutu nahi den ikerlan-proiektua, honen nondik-norako eta garrantzia azalduz, eta izan dezakeen zabalaren aurreikuspena.
 - Ikerketaren aurrekontu zehatza.
 - Harremanetarako helbidea eta telefona.
- 9.- Eskaerak jasotzeko epea 1998ko ekainaren 20an, eguerdiko 12etan, itxiko da.
- 10.- Aurkeztutako ikerlan-proiektuak aztertzeko epaimahaia **Noaia! Kultur Elkarateak** izendatuko du eta honen erabakiak aldaezinak izango dira.
- 11.- Epaimahaia dirulaguntzarik ez banatzea erabaki lezake, baldin eta aurkeztutako ikerlan-proiektuek gutxieneko kalitatetik ez dutela uste badu.
- 12.- Epaimahaia erabakiko du ze ikerlan-proiektuek jasoko duten dirulaguntza eta hau zenbatekoa izango den. Proiektu bat baino gehiago izan daitezke aukeratuak, beti ere 250.000 pta. banatuz gehienez.
- 13.- Epaimahaiaren erabakia parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.
- 14.- Epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren, dirulaguntzaren bat jasotzeko aukera egokitu zaie eskatzaileek hamar eguneko epea izango dute beraien oneritzia emateko. Hala egingo ez balute dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko lukete.
- 15.- Eskeinitako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:
 - ✓ Lehen zatia: dirulaguntzaren % 25a, eskatzaileak oneritzia ematen duen unean.